

④ *Joxe Azurmendik lan asko eta sakonak eman dizkio euskal literaturari. Saiakera izan da berak gehien landu duen saila. Bai marxismoaz, bai literaturaz, bai linguistikaz, liburu oparoak eman dizkigu.*

*Olerki-liburu bakarra dauka, "Hitz berdeak" izen-koa, eta bertan aurkituko dituzue gure olerki sozialaren hastapenak. Beste zenbait olerkari bezain ezaguna ez bada ere, euskarari dagokionez, benetan aberatsa eta gaiaren aldetik sakona da.*

*"Kate" izeneko olerki hau "Hitz berdeak" liburutik atera dugu. Garai batean Xabier Letek herriz herri eta plazaz plaza zabaldu zituen hitz ederrok. Kanta hau, zoritxarrez, grabatu gabe geratu zen eta pixkana-pixkana zokoratua bezala gelditu da.*

JOXE AZURMENDI, *Hitz berdeak*, E.F.A., Arantzazu, 1971.



## KATE

KATE honek lotzen nau,  
kate honek nau hiltzen,  
kate honen gogorak  
nau ederragotzen.

KATE honen **erpetan**  
bizitza bizitzen,  
deabruzko fede hau  
luzaro sofritzen.

Eztarrian kantua  
kate zahar honek  
dit gauzez itotzen.

Katean loturik  
bizitzaren gauean  
**urrintzen** joan ala  
Rembrandt-en ilun-argiz  
pintatzen zaidala  
nire zortearen imajina zitala  
itxaso **barearen** ertzetan.

Kate mingarri honek  
nau ederragotzen.  
Nau gizon bihurtutzen.

SAIAKERA.—Ensayo  
OPARO.—Mamitsua, ugaria  
HASTAPEN.—Hasiera

OLERKARI.—Poeta  
ZOKORATUA.—Baztertua  
ERPEAK.—Atzaparrak

URRINDU.—Urrundu, urrutiratu  
BARE.—Geldia, lasaia